

## ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

**20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko BRIGADAKO PEOI plazaren deialdi bereziko BEHIN BETIKO onartu eta baztertuen zerrendak onartzea.**

1416. Alkate Dekretuan akatsa antzeman da eta zuzendu egiten da.

2022ko abenduaren 14ko Alkate Dekretu bidez (1398 zk.) Oñatiko Udalak brigadako peoi plaza bat oposizio-lehiaketa bitartez hornitzeko hautaketa prozesuaren oinarri orokor eta espezifikoak onetsi zituen (2022ko abenduaren 30 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 247. zk.).

Deitutako plazen zerrenda, gainera, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko martxoaren 7an (56. zk.).

Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak 2023ko urriaren 5ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 193. zenbakian. Dagokion epea igarota eta erreklamazioak jaso eta berrikusita, behin betiko zerrendak argitaratzen dira.

Goian aipaturikoa ikusirik, nik, Iزارo Elorza Arregik, Oñatiko alkate naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilia honen bidez erabakitzen dut:

**Lehenengoa.-** Oñatiko Udalak oposizio-lehiaketa bitartez deitu duen brigadako peoi plaza hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien BEHIN BETIKO zerrendak onartzea.

Onartuen zerrenda:

NAN DNI	Abizenak eta izena Apellidos y nombre	I. Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico 1
***9206**	ALCELAY SAGASTIZABAL, IÑAKI	EZ
***5866**	ARENAS ALCORTA, IGOTZ	BAI
***0373**	DEL BARRIO VILLAZALA, JOAQUIN	BAI
***2325**	ECHENAUSIA IDIGORAS, JOSUNE	BAI
***7152**	GARCIA SANCHEZ, JON ANDER	BAI
***6864**	HERRERO ARRIOLABENGOA, JOSU	BAI
***5534**	KORTABARRIA KORKOSTEGI, IÑIGO	EZ
***2958**	LETAMENDI IGLESIAS, MIKEL	EZ
***5454**	MAESTRO WATSON, REBECA	BAI
***5565**	MARTINEZ MARTINANDIARENA, GORKA	EZ
***9423**	MONTERO MUÑOZ, USUE	BAI
***3743**	OLAIZOLA AIZPURU, JUAN JOSE	EZ
***4742**	SAGASTAGOYA UGARTE, KERMAN	BAI
***7382**	ZABALA IDARRAGA, MIKEL	EZ
***9184**	ZUBIA BARANDIARAN, JON	BAI

Baztertuen zerrenda:

Ez da horrelakorik izan.

**Bigarrena.**- Oposizio faseko lehenengo probaren data 2024ko urtarrilaren 24an izango da. Zehaztapen gehiago Oñatiko web orrian argitaratuko dira.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Laugarrena.**- [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

**Ebazpenaren aurkako bideak**

*Onarpen, bazterketa eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen alkatetzaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Udalburutzari hilabeteko (1) epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.*


*Baztertutako pertsonak hautapen prozesura aurkeztu ahal izango dira, baldin eta egiaztatzen badute kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela, egun horretarako ez bada ebatzi.*

*Probak egiten diren egunean aurkeztutako errekurtsoa ebatzi ez bada, hautagaiek kautelaz egin ahal izango dituzte. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.*

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñati, 2023ko azaroaren 8an

Alkatea



Izaro Elorza Arregui